



# Euskararen abenturan

Sakandarren parte hartzearekin, gazte euskaldunen espedizio ibiltaria bidean da / 2-3

**Sunsundeguin ez da Volvoen premium autobusik karrozatuko. Ez da kaleratzerik aurreikusten / 6**

**Altsasuko Udala Beheko benta kaleko paretaren oinarria konpontzeko lanak egiten hasi da / 7**

**X. Triku Trail motzean Ekhi Congil bigarren eta Marina Zabala hirugarren sailkatu ziren / 10-11**

**Asun Zelaia Etxarri abeslari urdiaindarra eszenatokira itzuli da Mantis taldearekin; herrian jo zuen / 14**

**SINADURAK**



AINGERU  
MIKEO  
AZPIROTZ / 5



BERDINTASUN  
ZERBITZUAK / 5



JUANKAR  
LOPEZ  
MUGARTZA / 14

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Donejakue bideak jarraituz, zazi Euskal Herriak oinez batuko dituzte EuskarAbenturan parte hartzen duten parte hartzaileek, 16 eta 17 urte bitarteko gazteek hiriburu guztiak zeharkatu eta bidean dauden gizateriaren ondare guztiak bisitatuko dituzte. Garila guztia emanen dute bate-tik bestera oinez eta elkarrekin bizitzen, euskaraz.

Oskia Zubiria Olague urdindarrak herriko bi joan zen urteko ediziora joan zirela jakin zuenean "Instagramen-eta kuxkuxeatzen hasi eta asko gustatu zitzaidan igotzen zutena. Oso ongi pasatzen zuten". Horrek guztiak erakarrita eman zuen izena. Maider Gallego Guerrero altsasuarrak duela bi urte EuskarAbentura izandako lagun baten bidez izan zuen espedizioaren berri. "Primerako abentura zela esan zidan. Oso pozik etorri zenez, parte hartzea pentsatu nuen. Aurten amak parte hartzera animatu nau". Ibai Luquin Ganuza olaztiarrak lehengusu baten bidez ezagutu zuen espedizioa: "ongi pasa zuen eta ongi ibili zen. Pentsatzeko esan zidan". Baita kasu egin ere. Izaro Gaspar Caballero olaztiarraren ahizpak duela hiru urte izan zen, bueltan kontatu ziona gustatu eta orain "gogotsu nago".

Gasparrek "oso esperientzia interesgarria izatea" espero du, "hilabete etxetik kanpo, zerbait desberdina egiteko. Ongi pasatzea espero dut". Luquini erakargarria zaio "hilabete mendian ibiltzea, kirola egiteko. Gainera, Euskal Herriko leku berriak ezagutzeko". Gallegok euskalki eta Euskal Herriko toki berriak ezagutuko dituela du buruan. "Lagun berriak egiten ditugu. Bizitza osorako geldituko den esperientzia bikaina izanen da". Gasparrek azken hori berretsi du. Zubiriak "oso esperientzia ona izatea" espero du, "beti oroituiko dudana. Eta lagun berriak egitea".

**Aurretik, eta aurreikuspenak**

Espedizioan onartuak izateko zergatik joan nahi zuten eta zer



Aurtengo EuskarAbenturaren lehenengo eguna Atharratzen. UTZITAKOIA

# Euskaran eta abenturan bat

Sei gazte sakandar parte hartzen ari dira aurtengo EuskarAbentura espedizioan. 127 parte hartzaileetatik lau sakandarrak dira, eta 14 xerpetatik bi. Hilabeteko bideari ekin aurretik haien nahi eta desioen berri jaso genuen

ekarpen egin ziezaioketen azalduz bideo bana egin behar zuten, baita lan bat aurkeztu ere. Luquinek "laguntasuna" emanen du: "gauza asko egiten dakit, eta laguntzea gustatzen zait". Olaztiarrak *Emakumeak eta kirola* gai hartuta emakumezko kirola

**"HILABETE ETXETIK KANPO, ZERBAIT DESBERDINA EGITEKO. ONGI PASATZEA ESPERO DUT"**

lari batzuen lorpenei buruzko idazlana idatzi zuen. Gasparrek ere gai bera aukeratu zuen. "Datu historikoak eta istorioak eman nituen. Eta bi adibide eman nituen". Gallegok ipuina idatzi zuen gai hori oinarri hartuta. Euskara eta euskalkiak gaiari heldu zion Zubiriak. Bien arteko desberdintasunak aztertu zituen bideo batean. "Urdindarra naizela baliatuta, euskara eta euskalkia herrian hitz egitea bulkatzeko egin nuen".

Luquinek espero du "ongi pasatzea eta, ahal bada, etapa guz-

tiak ongi bukatzea eta leku berriak ezagutzeko". Zubiriak espedizioari izena ematen dioten bi elementuak gogoko ditu: euskara eta abentura. Gallegok "euskarak hitz egiteko ohitura gehiago" hartu nahi du, "lagun gehiago egin eta haiekin euskara

**"BIZITZA OSORAKO GELDITUKO DEN ESPERIENTZIA BIKAINA IZANEN DA EUSKARABENTURA"**

partekatzea". Gasparrek ere euskara gehiago praktikatu nahi du, "baina, baita ere, leku desberdinak ezagutu" nahi ditu, "esperientzia ikaragarria iruditzen zait".

Hilabete batean 400 km egin beharko dituzte espedizioko ki-deek. Luquinek jakinarazi duenez, aurtengo ibilbidea aurrekoen desberdina da: "Iparraldean hasten gara, Nafarroan sartu eta, atzera buelta Iparraldera. Aurten Iparraldean egun gehiago egonen gara". Gasparri ahizpak esan dio "hasieran pixka bat gogorra egiten dela, denbora asko dela ibiltzen, baina ondoren ongi". Aitortu duenez, ez du ezer entrenatu. Zubiria batere entrenatu gabe joan zen: "festetan bi egun pasa ondoren, espero dut hasieran pixka bat kostatzea, baina ondoren ongi ibiltzea". Gallegok esan duenez, "ez gaude ohituta hainbeste ibiltzera, hainbeste egun. Gainera, hasieran jende ezezagunarekin. Baina hilabete bat denez, penaz joanen naizela esan didate". Luquinek aurretik kirola egiten bazuen ere, hilabete lehenago mendira gehiago joaten hasi zen, baita gimnasia pixka bat ere. "Uste dut ez dela oso zaila izanen". Gallegok, berriz, lagunekin batera ibilaldi batzuk egin ditu. Joan zen urtean aritutako urdindar batek Zubiria "asko lagundu dit: motxilan zer eraman, zer presatatu eta halakoak esan dizkit".

Iparraldeko etapak dituzte begiz jota Gallegok eta Luquinek. Azken horrek esan duenez, "ez naiz han egon eta ezagutu nahi dut". Gasparrek "beharbada Bilboko zerbait. Esan didate azkeneko eguna Getxon pasada bat dela, baina hori iristea ez dut nahi". Zubiriari Baztan, Lesaka eta Iparraldea hori gustatzen zaizkio.

Espedizioa hasi bitartean Gaspar euskara gehiago hitz egiten saiatu dela azpimarratu du. Gallegok ere. Luquinek esan duenez, "batzuetan pixka bat zaila egiten da. Baina saiatuz euskaraz erraz hitz egin daiteke". Aitortu duenez, Olatzagutian euskaraz "oso



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



gutxi" egiten dute, "pena da". Zubiriak esan duenez, euskara hitz egitearena "pixka bat bai" entrenatu behar dela, "ez bai-kaude ohituta beti euskaraz hitz egitera. Baina ongi ibiliko naizela uste dut".

Zubiriaren iritziz "EuskarAbenturan lagun asko egiten dituzu eta leku askotako jendea ezagutzen duzu, beraz, norabait joatean bakarren bat ezagutuko dut eta lekuak ezagutzeko aukera ematen dizu". Horregatik etxera bueltan "oroitzapen onak eta lagun berriekin" bueltatu nahiko luke. Luquin "oroitzapen askorekin" bueltatuko da, "leku berri asko bisitatuko baititut". Gallegok eta Gasparrek "batez ere lagunak egitea" espero dute, "bizi guztian gogoan izateko lagun hauek EuskarAbenturan egin nituela. Espedizioan egon zen nire laguna bere espedizioko kideekin hitzorduak jartzen dituzte. Hori bizitza osorako da". Gauza bera egiten du Gasparren ahizpak. Berak etxera esperientzia onekin bueltatu nahi du.

### Xerpak

Maialen Biain Goñi etxarriarra xerpa laguntzailea da, xerpa berriz, Aimar Vicente Lopez de Goikoetxea olaztiarra. Biak jzioquitar izan dira. Biain 2021ekoan aritu zen, pandemia betean. Hamar egunekoan izan zen orduko edizioa. "Oso ongi pasa nuen eta harreman oso politak sortu genituen. Beti gelditu zait arantzaxo bat. Bueltatuko naiz". Aurten begirale titulua atera du eta praktikak EuskarAbenturan eginen ditu. "Niri asko gustatzen zait ideia. Disfrutatzen noa, parte hartzaile bat banintz bezala". Aimar Vicente Lopez de Goikoetxeak "abentura zoragarri" gisa oroitzen du duela hiru urteko espedizioko bere parte hartzea. Xerpa laguntzaile izan zen joan zen urtean, praktikak egin zituen: "esperientzia izugarria izan zen. Argi nuen aurten xerpa izan nahi nuela, eta aukera hori eskaini dit espedizioak". Biak elkarlanean ariko dira.

Vicentek esan duenez, EuskarAbenturan begirale da "nazio mailako espedizio bat delako, aukera gutxi daudelako halako esperientziak bizitzeko eta badakidalako Olatzagutian Udan Euskaraz beti egonen dela". Biainek azaldu duenez, "gehiago gustatzen zait gazteekin lan egitea haurrekin baino. Gaine-

## Espedizioko kideak




**OSKIA ZUBIRIA OLAGUE**  
URDIAN  
JZIOQUITARRA



**MAIDER GALLEGO GUERRERO**  
ALTSASU  
JZIOQUITARRA



**IBAI LUQUIN GANUZA**  
OLATZAGUTIA  
JZIOQUITARRA



**IZARO GASPAR CABALLERO**  
OLATZAGUTIA  
JZIOQUITARRA



**MAIALEN BIAIN GOÑI**  
ETXARRI ARANATZ  
XERPA LAGUNTZAILEA



**AIMAR VICENTE**  
LOPEZ DE GOIKOETXEA  
OLATZAGUTIA  
XERPA

ra, nahiago nuen udaleku bat, lo egitearena. Eta EuskarAbentura aukerarik onena iruditu zitzaidan". Vicentek gaineratu duenez, parte hartzaileak "adin aldetik helduak dira eta ez da guztiz gure ardura, haiena ere bada berain eta besteen burua zaintzea. Guztion elkarlana beharrezkoa da".

127 gazteez 30eko lantaldea arduratzen da. Haietatik hamar xerpa eta beste lau laguntzaile daude. Lantaldean ere daude: koordinatzaileak, argazkilariak, bidegileak, medikuak, erizainak, gidariak eta material arduradunak. Guztiak lantaldetan banatzen dira: osasuna, komunikazioa, xerpak, koordinazioa... Etxarriarrak berarekin espedizioan egondako xerpa eta Vicente ezagutzen ditu aurretik. Begirale eta lantaldeko kide guztiak Zarautzen elkartu ziren garagarriaren hasieran. "Prestaketa lanak eta gure artean ezagutzeko topaketa izan zen", azaldu du Biainek.

Parte hartzaileak taldeka banatzen dituzte. "Hamaika talde gaude eta xerpa bakoitzak talde baten ardura du. Bestela, etapak egiteko ibiltzeko erritmoaren arabera hiru taldetan banatzen ditugu jzioquitarak", argitu du Biainek. Bien ardurapeko taldean hamahiru jzioquitar daude. Etxarriarrak esan duenez, "azkenean, nik nire taldekoak hobe ezagutuko ditut. Azken finean, beraiekin gosaldutako, bazkaldu eta afaltzen dudalako. Baina gero etapetan beste batzuekin baldin banago haiek ere ezagutuko ditut, baina besteren batekin behar bada ez dut hainbeste bat eginen. Azkenean denok elkar ezagutuko dugu".

### Egun bat

Egunero 07:00ak aldera esnatu eta taldean elkarrekin gosaltzen

**"EZ GAUDE OHITUTA BETI EUSKARAZ HITZ EGITERA. BAINA ONGI IBILIKO NAIZELA USTE DUT"**

**"SARE BAT SORTZEN DUZU. BESTE EDOZEIN BEZALA, ZUK ZAINDU BEHARKO DITUZU HARREMAN HORIEK"**

dute, eta egunaren aurreikuspena egiten dute. Ondoren, motxilak prestatu, handiak furgonetan sartu eta ibiltzeari ekiten diote. "Batzuetan etapa irekitzea egokituko zaigu eta jzioquitar guztiak nire pausoei segika izanen ditut", azaldu du Vicentek. Gaineratu duenez, "kirola egiteko ohituraren arabera hiru talde egiten ditugu". Bidean hamaiketako izaten dute. Etapak ibilbidea osatuta, bazkatzera elkartzen dira. Arratsaldean, berriz, hainbat eragileren hitzaldiak, dinamikak edo beste-lakoak dituzte espedizioko kideek. Afaldu aurretik dutxa hartzeko edo aisialdirako tartea dute. Iluntzean edozein udalekutako enpareko dinamikak dituzte. "Hilabete bat etxetik kanpo da, baina han beste etxe, familia bat sortzen dugu", azaldu du Vicentek. Atsedeen eguna Olatzagutiko festetan hartu duela ere jakinarazi du. Biainek aitortu du etapa asko ez dituela ezagutzen. Baina Araia eta Zerain arteko "interesgarria" iruditzen zaio. "Oso etapa polita" dela berretsi du Vicentek, baina kostaldeko eta Ipar Euskal Herriko etapak ditu begiz jota.

EuskarAbenturan lagunak egin zituzten biek. "Euskal Herrian sare bat sortzen duzu. Beste edozein bezala, zuk zaindu beharko dituzu harreman horiek. Nik harreman sendoak sortu nituenekin oraindik kontaktua dut. Oso polita da", esan du Biainek. Vicentek gaineratu duenez, "urtean zehar Euskal Herriko edozein puntara zoaz eta jende ezaguna duzu han. Eta beste plan batzuk egiteko aukera ematen dizu, batez ere agorrilean herrietako festetan ibiltzeko". Vicentek gaineratu duenez, "ordu guztiak probestu nahi ditugunez, puntu negatiboa da lo gutxi egiten dugula, ahazten zaigu". Bizitako esperientziaren arabera, eta aukera izanez gero, Biainek ez du baztertu xerpa gisa bueltatzea.

Euskara herrira ekartzearena "bakoitzaren esku dago" Biainen iritziz, "baina oso garrantzitsua da. Han sortzen dituzun ohiturak zure egunerokotasunean mantentzen badituzu, euskara zure hainbat arlotara eraman dezakezu". Vicentek esan duenez, "uste dut jende askok 'klik' egiten duela, eta harreman berriak egiterakoan euskaraz izatean gehiago laguntzen du. EuskarAbenturak euskararen aldeko 'klik' hori egiteko balio du".

# Izan giltzarri!



**Maria Saez de Albeniz Bregaña** Etxarri Aranazko alkatea

**Epa jendiek!  
Etxarri Aranazko alkatetzatik,  
izan gaitezen giltzarri!  
Gora Guaixe!**



[guaixe.eus/  
kideak](https://guaixe.eus/kideak)



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

## Udaldia, indarberitzeko eta filosofatzeko

Sabela beteta dagoenean errazago filosofatzen omen da. Halaberharrez goseak dagoenak gogo gutxi izanen baitu barau egiteko. Filosofia sakonetan sartu gabe, eguneroko egintzetan makina bat kontu izaten dira pertsonaren ongizateari eragiten diotenak. Horietako asko ttikikeriak, baina egunerokoan tematiak. Asko pozgarriak, baina baita atsekabeak ere. Seme-alabekin konponketak/liskarrak. Etxeko ardurei buruzko planak/eztabaidak. Lantokiko atseginak/buruhausteak. Kalean, bi aparkaleku hartzen dituen. Auzokoaren agurkera sinpatikoa/zehar begiratu lehorra. Ustekabeko trafiko isun maltzurra. Parrandan, neurrigabe mozkortu. Eta horrela, mugarik gabe luza litekeen zerrenda, egunero dantza egin beharreko gertaerak.

Jakina, guztiok gara ezberdin eta bakoitzak bere modura erantzuten die egoera horiei pertsonalitatearen arabera, alegia, esperientziaren, heziketaren, garapen neuropsikologikoaren eta beste hainbat faktore kontuan hartuta. Hori horrela, Askotan, psikologoei entzun izan diegu oso komenigarria izaten dela eguneroko bat idaztea egindako gauza garrantzitsuenak jasoz. Baina, ze rolo, ezta? Nor hasiko da eguneroko bat idazten? Halako ordutan, dutxa hotz-beroa hartu dut. Gehiegi gosaldut, pasada bat. Lanerako bidean semaforo gorria pasatu dut, berandu bainindoan. Lanean, nagusiak nabarmen harrapatu nau mobila kontsultatzen. Eta, egunero letania berdina. Bada, horren orde, duela jada 2.000 urte, Epicteto filosofo greziarrak eguneroko simple bat idaztea proposatu zuen. Soilik hiru esaldi labur idatzi edo gogoan hartu behar dira. Lehenengoa, zer egin den ongi. Gauza bat bakarrik. Bigarrena, zer egin den gaizki. Eta hirugarrena, zer aldatu behar den. Horrela, formula simple hori erabilia, ematen du jokabideez kontzientzia sakona hartzen dela, eta norberaren eguneroko ekintzetan hobekuntza nabarmena lortzen omen da. Azken batean, ekintzak zehazten du pertsona, ez hainbeste esanak.

Horrela bada, udaldian bete-bete sarturik gaude eta garai hau aproposa izan daiteke bizi filosofiaz hausnarketatxo bat egiteko. Izan ere, ikasketak eta lana alde batera utzita, sasoi hau astiroago eta lasaitasun handiagoz hartzen dugu. Hortaz, ez da garai txarra izanen gogoia indarberitzeko eta pixka bat filosofatzeko.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

HARA ZER DIEN

## Guztiok aske gozatzeko festen alde

### SAKANAKO MANKOMUNITATEKO ETA ALTSASUKO UDALEKO BERDINTASUN ZERBITZUAK

Dagoeneko udan sartu gara, eta horrekin batera oporrez, aisialdiaz, lasaitasunaz... gozatzeko aukera iritsiko zaigu. Gainera, datozen egun eta asteetan Sakanako herri askotan festa giroa nagusituko da, gure ohiko egunerokotasuna alde batera utzi, eta gure gertukoekin ospatzeko, gozatzeko eta ongi pasatzeko aukera izanen dugu.

Dena den, guztiok aske gozatzeko festak eduki ditzagun ezinbestekoa da pertsona guztiok eraso sexistarik gabeko festen aldeko konpromisoa hartzea. Izan ere, emakumeen kontrako indarkeria ez da "gaixo" edo "ero" batzuek eragiten duten zerbait, baizik eta gu guztiok mantentzen dugun sistema sozial baten ondorioa da; eta berau hankaz gora jartzen ez dugun bitartean, berorren aurkako jarrera aktiboa hartzen ez dugun bitartean, emakumeen aurkako era guztietako erasoak

mantendu eta normalizatuko ditugu.

Beraz, emakumeek festak berdintasunean eta askatasunean gozatzeko, funtsezkoa da gure inguruan ikusten ditugun era guztietako erasoak (komentario matxistak, mespretxuak, irainak...) salatzea, erasoak jasan duen emakumeari babesa adieraztea, eta erasoak egin duena bere portaera aldatzeko pausoak ematera behartzea.

Guztiok aske gozatzeko festa batzuen alde, ongi pasa pasatu gabe!



OBJEKTIBOTIK



**Sakana.eus**  
Sakana @sakana\_eus

#Aralarkoartzainak #Aralar1941 #abeltzaintza #natura  
#elikadurairaunkorra #jasangarritasuna #Aralar #Sakana



**guaixe**  
komunikazio taldea

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)**Maketatzailea:**

Irene Trece Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

**GK diseinu zerbitzua:**

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
619 821 436  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)

**Administrazioa:**

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

**Lege gordailua:** NA-633/1995**Tirada:** 3.200**Erredakzio burua:**

Alfredo Alvaro Igoa  
[erredakzioa@guaixe.eus](mailto:erredakzioa@guaixe.eus)

**Erredakzioa:**

Maidier Betelu Ganboa  
[kiriolak@guaixe.eus](mailto:kiriolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

**Irratia:**

Eneida Carreño Mundiñano  
[irratia@guaixe.eus](mailto:irratia@guaixe.eus)  
948 567 074

**Publizitatea:**

Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)  
661 523 245

**Koordinatzailea:**

Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

**ARGITARATZAILEA:**

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**guaixe**  
kide



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

# Volvobusekin akordioa bertan behera

Bi aldeek hala adostu dute. Sunsundeguiaren finantza egoera delikatuak inbertsiorako gaitasunik gabe utzi du. Ondorioz, Volvobusen azken belaunaldiko autobusak ez dira Altsasun karrozatuko. Hala ere, suediarren beste modelo batzuk karrozatzen segituko du. Printzipioz ez da langileen kaleratzerik aurreikusten



## UZTAILAK 8-12

**10:00** Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

**10:15** Prentsaren azalak

**10:20** Albisteak eta kirolak

**10:30** Hizketan

**11:05** Solasaldia Karrape eta Aralar irratiarekin

**14:00** Errepikapena

Uztailak 6 10:00-12:00 San Ferminetako saio berezia (Euskalerrria irrátia)

Uztailak 7-12 12:00-14:00 San Fermintza (Euskalerrria irrátia)

## Hizketan

**Uztailak 8** Aimar Tadeo eta Nahia Imaz (Txirrindulariak)

**Uztailak 9** Unai Jimenez (Eraldaketa komunitarioko teknikaria) eta Joseba San Sebastian (autobus gidaria)

**Uztailak 10** Bertso saioa (Bertsoa.eus)

**Uztailak 11** Saloa Iralzoz (Dantzaria)

**Uztailak 12** Agenda berezia eta Ekhi Congil (Triku Trailen balorazioa)

### Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Gauzak ongi, Sunsundeguiaren lantegian gaur egun Volvobusen azken belaunaldiko 9700 eta 9900 autobus modeloak karrozatzen ariko lirateke langileak. Baina bi enpresek hitzartu zuten lan plangintza ez da bete eta, bideragarria ez zela ikusita, aldeak akordioa eteteko ados jarri ziren. Astelehen arratsaldean premiaz egindako bilera batean hartu zuten erabakia. Mikel Irujo Amezaga Industria eta Trantsizio Ekologikoko eta Enpresa Digtaleko kontseilariak esan duenez, "Sunsundeguiaren finantza egoera oso delikatu izaten jarraitzen du. Horregatik, bi modeloen ekoizpena eteteko elkarrizketak izan ditu Volvobusekin, inbertsio handia behar baitu. Eta, finantza egoera hori ikusita, egokiago jo da modeloen fabrikazioa etetea". Antza, zenbait hornitzailek eskaerak jasotakoan zati bat ordaintzea exijitu zioten Sunsundeguiari. Kontseilariak gaineratu duenez, "Sunsundeguitik jakinarazi digute Volvok bere merkataritza harremana eta lan karga handitzeko konpromisoa mantentzen dituela, eta horrek enpresaren bideragarritasuna bermatzen du".

Proiektua Sakanarako estrategikoa zen, 400 eta 500 lanpostu artean sortzea aurreikusten zuten, 720 langile izan arte. Urtean 783 autobus ekoiztea eta 140 milioi euro fakturatzea aurreikusi zen. Volvo proiektuak atzerapenarekin baina aurrera jarraitzen zuten. Aurreneko prototipoa egin zuten, homologatzeko zain. Bigarrena, berriz, nahikoa aurreratuta zegoen. Bi modeloen ekoizpen fasetik gertu zegoen enpresa.

### Langileak

Enpresa batzordeak zuzendariaren ahotik berria asteartean jaso zuten. Jakinarazi zieten, Volvok



Bi enpresek akordioa itxi zutenean gobernuko kideak lehen lerroan zeuden. ARTXIBOA

hartu zuen bi modelo horiek ez egiteko erabakia. Aldi berean, esan zieten, printzipioz, ez dela plantilla murrizketarik aurreikusten. Hala ere, agorrilean enpresak diru sarrerarik izanen ez duenez, langileei estra bi zaitan kobratzea proposatu zieten, erdia orain, beste erdia irailean. Zuzendaritzak horrela hornitzaileei erakutsi nahi die ahalegina egiten ari direla. Enpresa batzordeak eskaera horri uko egin dio, "ezer konpontzen ez duelako". Eta garileko, agorrileko nominak eta estra osorik or-

daintzeko eskatu du. Langileen ordezkarien iritziz, "murrizketa ugari izan ditugu, bidean asko utzi dugu. Poltsikoa ukitzea, ez. Jendea nekatuta eta motibaziorik gabe dago". Gaineratu dutenez, "Murillo zuzendaritzatik kalerratu zutenetik kudeaketan aldaketa egon da eta soldaten ordaintzea egunean dago. Aurtengoa finantza trantsizioa da". Antza, enpresa hornitzaileen egoera okerragoa da, Sunsundegui ez dielako pagatzen. Enpresa batzordeak egoera aztertzekeko administrazio kontseiluarekin bilera eskatu du; "jakin nahi dugu zein den gaur egungo egoera eta etorkizuneko plana".

Gaur egun Sunsundegui 410 langile daude. Volvo proiektuarekin mordera sartu ziren, eta, horretan bakarrik, 40 bat zeuden lanean. Langileen ordezkariak esan digutenez, "ez zuten kontratazio erritimoarekin jarraitu. Orain langile horiek birkokatuko dituzte". Zuzendaritzaren asmoa da egunean bi autobus egitea. Urtean Sunsundegui 300 autobus eta Volvoren 150 egitea aurreikusia zegoen. Orain 400 unitate egin nahiko litzukete. Hori lortzeko aukeretako bat da Volvok Sc7 NG modeloko eskaerak Altsasura bideratzea. Suediarren ordezkariatza heldu den astean bisitan etorriko da. Enpresa batzordetik azaldu dutenez, autobus elektrikoena geldirik dago, baina aurtengo eta heldu den urteko lan kartera beteta dago.

## Kronologia

- **2023-05-04** Aurreakordioa.
- **2023-08** Langileak trebatzeko ikastaroak.
- **2023-10-24** Akordioa itxi, Gobernuko kideak lekuko zirela.
- **2023-12-21** Gobernuak onartu zuen Sodenak Sunsundegui 400 milioi mailera ematea.
- **2024-05-06** Gobernuko eta VolvoBuseko ordezkariak bilera egin eta proiektuaren "martxa ona" berretsi zuten.
- **2024-05-19** Gobernuak onartu zuen Sodenak beste sei milioi mailera ematea.

## Udal informazioa telefono mugikorrean

Horrela arakildarrek eskura dituzte udal albisteak, agenda edota eguraldiaren berri

**Alfredo Alvaro Igoa** ARAKIL

Arakilgo Udalak bere jardunaren eta ibarrean gertatzen denaren berri emateko telefono mugikorretarako euskarria prestatu du. Arakilgo Udaleko kultur teknikari Josu Dufur Otheguyk azaldu duenez, "telefono mugikorretarako diseinatutako web orri bat da. Haren laster marka telefonoaren pantaila nagusira jaitsi eta aplikazio bat bezala funtzionatzen du. Baina kasu honetan ez du aplikazioek eskatzen duten eguneraketarik egin behar, eta telefono mugikorreko memoria ia ez du erabiltzen".

Dufurrek gaineratu duenez, informaziorako bitarteko berria "udalaren jarduna eta ibarraren berri arakildarrei gerturatzeko egin dago. Arakildarrek ibarraren berri eskura izan eta azkar batean kontsultatzeke diseinatu dago". *Arakil.eus/eu* webgunearen bidez egin daiteke lasterbidea. Honako atalak ditu: udalaren albisteak, ibarreko agenda, intereseke kontaktuak, eguraldia, Arakilgo herriak eta gardentasun atalean hainbat udal agiri daude. Euskaraz edo gaztelaniaz dago. Udalak arakildarrek laster marka egin eta hura telefono mugikorreko pantaila nagusian jarzera gonbidatu ditu.

## Dermioko bidean abiadura murriztaileak

Olaztiar askok paseatzen dute Azpiko dermiko eta Alduiko dermioetan. Bideak asfaltatu zirenez geroztik ibilgailuen abiadura handitu egin da. Hori ikusita, Olatzagutiko Udalak abiadura murrizteko gomazko bandak jarri ditu bideetan. Horrekin batera, errota ondoko bide zatia ibilgailuendako itxi du. Bide zati hori hain justu ibai ertzean dago.

# Pareta konpontzeko, ibaian lanean

Altsasuko Beheko Benta kalea ibaiaren ertzean dago eta ubeldearen ur emariak haren oinarrian zegoena eraman zuen. Kalteak ez handitzeko, altsasuko Udalak pareta konpontzeko lanak eman ditu

ALTSASU

Ibaiaren emariak Beheko benta kalearen hormigoizko eustormaren oinarrian zegoen tufa eraman zuen eta, ondorioz, zati bat erori zen. Horrek arazoak eragin zitzaizkion hormaren osotasunean, eta, beraz, beharrezkoa da horma sendotzea eta babestea. Horretarako, hormigoiz beteko dira dauden zuloak. Lan horiek egiten hasi ziren langileak joan zen astean. Horretarako, lehenik eta behin hormaren oinarrian dagoen landaredia kendu, oinarria prestatu eta enkofratua eginen dute, gero porlanez betetzeko.

Obrak joan zen urtean egitekoak ziren, baina Ebroko Ur Konfede-



Langileak joan zen astea hasi zituzten konponketa lanak.

## Ibaira eroritako txipua kentzeko ardura zeinena da?

Ebroko Ur Konfederazioak dio Etxarri Aranazko Udalarena dela, eta udalak ez dela bere egitekoa

ETXARRI ARANATZ

Ibai ertzean zegoen txipu bat erori eta Movistarren kable bat aurretik eraman zuen garagarriko bigarren astean. Telefonía konpainiak beste kable bat jarri zuen eta zerbitzuan ez

zen eten handirik gertatu. Baina tamaina handiko txipuak ibaian botata segitzen du, NA-120 errepideko zubiaren kontra kasik. Etxarri Aranazko Udalak Ebroko Ur Konfederazioari txipua kentzeko eskatu zion, eta

erantzun dio populatutako gune batean denez, udalaren ardura dela kentzea.

Maria Saez de Albeniz Bregaña alkateak azaldu duenez, "konfederazioak aurretik eman dizkigun beste erantzun batzuekin kontraesankorra da oraingo erantzuna. Aurretik arrazoi beragatik ez digu hainbat gauza egiten utzi. Beraien ardura da". Bestalde, alkateak jakinarazi duenez, "gobernuak ibai ertzak txukundu nahi ditu eta dauden txipuak moztu. Aurki egingen dute".



Txipua ibai erdian dago, zubi ondoan.

Zure edari banatzailea!

**Hijos de Goikoetxea**  
Tel. 948 467 317 - 896 979 279 - GAITAKI ARDUA 11 - ALTSASU

**PORTUKO**

Gosaririk hoberenak Portuko okindegian

Altsasu: 948 563 822 (denda)  
948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Aranatz: 948 460 988

# "Nire bizitza okerrerako aldatu da"

**DIMITRI ERMOLENKO** LANERAKO LAN EZINTASUNA ESKATU DU

Istripuak, artak eta operazioak bere bizi kalitateak behera egitea eragin diote. Bidean "zurea da arazoa" esan diote. Diagnosi zuzenak epaitegira eraman du

**Alfredo Alvaro Igoa** ALTSASU

Goiz batez, lanera bizikletan joaten zela, Dimitri Ermolenko istripua izan eta min hartu zuen. Gorputzean dituen oinazei orduetik bizi izandakoak eragindako buruko minak gehitu behar dizkio.

**Lan istripua izan zenuen.**

'In itinere' istripua izan nuen. Ibarrea industrialdera, lanerako bidean izan zen, istripua 2021eko maiatzaren 29an. Bizikletako aurreko gupila blokeatu zen eta aurrerantz atera eta lurraren kontra buruan kolpe handia hartu nuen. Tarte batez konortea galdu nuen. Altxatzean segundo batzuetan zer gertatu zen ezin izan nuen ulertu. Aurpegitik odola erortzen zela ikusita osasun etxeko larrialdietara joan nintzen. Buruan nuen zaurian lau puntu jarri zizkidaten. Josteko ezin nuen ezta ohatilan etzan eta eserita nengoela josi zidaten. Lepoko mina nuen. Baina gainontzeko zauriak ez ziren larriak.

Etxera bidali eta astelehenean mutuara joateko esan zidaten.

**Eta mutuan, zer?**

Galdera batzuk egin zizkidaten. Istripua izan nuela jaso zuten. Erradiografiak egin zituzten eta istripua arina izan zela esan zuten. "Lepoak kolpeagatik min egiten dizu". Buruko zauria sendatzeko zazpi egunetarako baja eman zidan.

**Baja bukatuta, lanera?**

Bai. Lepoak eta buruak min handia ematen zidan, ibiltzea asko kostatzen zitzaidan. Granaila eta metalizatuko lana da, tona askotako piezekin, eskaierak igo behar ditut, pisuarekin lan egin. Edozein mugimendurekin lepoak min egiten zidan. Saltatzea oso mingarria zen. Burua ezin nuen asko biratu. Ohean ezin nuen lo egin, burua mugitzea, edozein muskulu mugimenduk, lepoan min egiten zidalako. Atzera ere medikura joan nintzen, nire oinazeen berri emateko: lepoan min handia nuela. Pastillak eta

ukenduak errezetatu zizkidan. Erresonantziaren bat egiteko eskatzen nuen, baina ezezkoa esaten zuten, mutuaren arabera ez bainuen arazorik. Esaten nien mutuan ere ez zidatela ezer egin, ez ninduela espezialista batek berak ere aztertu. Alferrik. Hilabetez tratamenduarekin egoteko, eta segituz gero, beharbada espezialistara bidaliko nindutela esan zidaten.

**Horrela noiz arte?**

Hainbatetan bueltatu nintzen medikuarengana eta pastilla eta ukenduak errezetatzen segitu zuen. Nik lastailean baja hartu nuen. Ordura arte minez lan egiten aritu nintzen. Medikuek kasurik ez zidanez egiten, osasun etxeko administraziora joan nintzen eta azaldu nion espondilitisagatik %35eko ezgaitasuna dudala. Nire kasua eramatzen duen erreumatologoarekin lehen-tasunezko hitzordua eskatu nuen, "bestela ospitaleko larrialdietara noa eta artatu arte ez naiz handik mugituko, hemen ez baitidate inolako kasurik egiten". Idatziz jaso dago: ezgaitasuna duen pertsonaren batek kalte posibleak baditu, espezialista batek artatu behar du eta erresonantzia egin behar zaio.

**Espezialistak hartu zintuen?**

Gertatutakoa eta bizitutakoa azaldu ondoren premiazko erresonantzia egitera bidali ninduen. Hurrengo hitzorduan neuroziruarengana bidali ninduen orno zerbikalak hautsiak nituelako. Atzera ere, erresonantzia egin eta esan zidaten: "ebakuntza berehala egin behar dugu. Istripuaren unean egoki artatu balizute, beharbada ez genuke ebakuntza eginen. Baina lepokoak jarri ez dizuten, erresonantzia egin ez dizuten eta lanera bidali zintuzten, ornoen egitura dagoeneko hautsita dago eta ezin da berez soldatu". Ordura arte oinazez eta soinu arraroak entzuten egon nintzen, hautsitako



Dimitri Ermolenko epaitegien ebazpenen zain dago gaur egun.

errodamendu baten parekoak. Ebakuntza 2023ko otsailean egin eta ornoetan lau torloju jarri zizkidaten.

**Ondoriorik?**

Ezkerrera eta eskuinera edo gora begiratzeko buruaren mugimendua oso mugatuta dute. Besoak eta behatzak berehala lokartzen zaizkit oso aktibo nagoenean. Halakoetan gelditu eta lasaitu beharra dute. Litekeena da bizkar muina ikututa egotea. Nire bizitza okerrerako aldatu da: dagoeneko ezin dut lan egiten nuen lantokian lanik egin, dudan adinarekin ez naute inon hartu nahiko. Bide hori itxi zait.

**Lanera bueltatu zara?**

Ez, bajaran nago. Lanerako ezintasuna eskatu dute. Baina denbora behar dutenez, nire eskaeraren erantzunaren zain nago. Eta bitartean ezin dut doako prestakuntza ikastarorik egin, ez nagoelako langabezia, bajaran baizik.

**Zergatik jo duzu epaitegira?**

Osasunbidea eta mutuaren kontra egin dute. Neuroziruarengana hots egin zidanean esan zidan: "haustura ireki hori izanda, mirari bat da zu paralizatuta ez egotea. Dagoen hausturarik arriskutsuena da. Pixka bat desbideratzen bada, bizkar muina blokeatu eta paralizatuta geldizaitzke. Argi ibili, edozein pausozureta azkena izan daiteke

eta". Une hartan mutuari erreklamazioa aurkeztu nion, akatsa egin eta arduragabekeriarekin jokatu zutela esanez eta neuroziruarengana diagnostia azalduz. Bi hilabetez erantzun zidaten esanez egoki artatu nindutela. Berak ardurarik izan duenik ukatzen du. Osasunbideari dagokionez, protokoloari jarraituz behartuta zeuden lepokoak jartzera, anbulantzia deitu, espezialista jakinaren gainean jarri, erresonantzia magnetikoa egin eta gaixoa haustura balu bezala artatu espezialistaren erantzuna izan arte. Halako ezer ez zuten egin ez batek ez besteak. Osasunbideari aurkeztutako sei hilabete zituen eta zortzi pasata erantzun ez zuenez, epaitegira jo genuen. Eta zain gaude.

**Bizitakoaz, zer iritzi duzu?**

Haiendako arazoa nirea da. Legeak eta protokoloak daude. Medikuek ezin dute justifikaziorik gabe zehaztutako estandar horietatik aparte aritu. Nik istripua izan nuen eta ez zituzten estandar horiek bete.

**"EBAKUNTZA EGIN ARTE, 9 HILABETE, OINAZEZ ETA SOINU ARRAROAK ENTZUTEN EGON NINTZEN"**

## DUELA 25 URTE...



## Turismo bulegoa zabalik

Sakanako eta Nafarroako turismo baliabideen berri emateko, Altsasuko Foru plazan turismo bulegoa zabaldu zuten. Ana Andueza zen bisitarien harrera egiten ziena. Haiek inguruan dauden ibilbide, leku interesgarri, ostatu eta jatetxeen inguruan jakin nahi zuten. Bisitariak mendia erakarrita etortzen ziren Sakanara. Garilean eta agorrilean 645 pertsonaren informazio eskaerak izan zituen.





Iscarren lehiatu zen Nafarroako selekzioa. Erdian, Pablo Lopez de Goikoetxea, eta behean, Maialen Larraza. FEDERAZIOA

# Nafarroak gorenean jarraitzen du

**PILOTA / ERREMINTA** Iscarren jokaturako eskola adineko Espainiako Federazioen Arteko Pilota Txapelketa Nafarroako selekzioak irabazi du. Pablo Lopez de Goikoetxea altsasuarrak jaso zuen kopa. Tartean, Maialen Larraza paleta goma txapelduna da

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA Ekainaren 27tik 30era eskola adineko 36 metro frontoiko Espainiako Federazioen Arteko Txapelketa jokatu zen Iscarren (Valladolid). Nafarroako selekzioko hautatzaileek prestatutako ordezkartzan sakandar bakarra zegoen, ekainaren 23an Lekunberrin Julene Inunziagarekin batera kadeteen mailako Nafarroa Foru Komunitatea Paleta Goma Torneoa irabazi zuen Maialen Larraza Senar palista etxarriarra.

**Larrazarendako, "ahaztezina"** Etxarri Aranazko Gure Pilota klubeko Maialen Larraza lehenengo aritu zen Espainiako Federazioen Arteko Txapelketan,

eta bertan aritzeko "irrikaz" zegoen. Banakako Paleta Goma Txapelketan jokatzen hautatu zuten, Or baitzetako Elaia Zabalzarekin batera. Hautatzaileak une bakoitzean erabaki zuen nork ordezkaturako zuten Nafarroa, eta Larrazak partida bakarra jokatu zuen. Gaztela Mantxaren kontrako partida. Partidak hiru setetara jokatu ziren. "Lehenengo setean nahiko urduri hasi nintzen, gaizki samar: 3-7 galtzen ari nintzela, partidari buelta eman nion eta 10-7 irabazi nuen lehen seta. Bigarrenean, askoz hobeki aritu nintzen, eta 10-3 irabazi nuen. Kanporaketa aurrera atera nuen" azaldu du Larrazak.

Gainontzeko partidak Auñamendi klubeko Elaia Zabalzak jokatu zituen. "Bera oso prestatua dago modalitate honetan, denbora asko darama entrenatzen, eta oso jokalaria ona da". Nahiz eta txapelketan partida bakarra jokatu, egindako lanarekin "oso pozik" dago palista etxarriarra, "aurten hasi naizelako modalitate honetan entrenatzen eta entrenamendu oso gutxi egin ditudalako. Beraz, oso pozik nago". Larrazak eta Zabalzak egindako lanari esker, Nafarroak irabazi zuen Emakumezkoen Paleta Gomako Espainiako Txapelketa, etxarriarraren zoramenerako. Trofeo garrantzitsua batu du bildumara.

Nafarroako selekzioan ere oso kontentu daude. Guztira zortzi modalitate ezberdinetara aurkeztu zen Nafarroa, eta zazpi irabazi zituen. Zazpi kopa horietaz gain, Espainiako Txapelketako kopa nagusia irabazi zuen Nafarroak. "Gure modalitateko paleta gomako kadete mutilak izan ziren garaipena lortu ez zuten bakarrak, baina finalerdietara sailkatu ziren, eta finalerdietan oso partida ona jokatu zuten. Beraz, Nafarroako selekzioan oso pozik gaude". Bizitakoarekin liluratuta dago Larraza. "Esperientzia bikaina izan da, oso gustura pasatu dudalako eta lagun asko egin ditudalako. Ahaztezina izan da".

**Lopez de Goikoetxearen kopa** Espainiako Eskola Arteko Txapelketan Nafarroako selekzioak egiten duen egonaldia kudeatzen eta bertara joaten makina bat urte daramatza Pablo Lopez de Goikoetxea Sueskun altsasuarrak. Nafarroako Pilota Federazioko kidea izan zen 30 urte inguru, makina bat kargu eta ardura izan zituen, eta oraindik bera da Iscarreko Espainiako Eskola Arteko Txapelketaren Nafarroako selekzioaren ardura. Jakina, berak jaso zuen Nafarroako selekzioak irabazitako kopa.

Kontentu dago Altsasuko beteranoa. "Nafarroak pilotan duen etorkizunarekin pozik nago, eta titulua lortzen bada, hobeki", azaldu du pilotaren sustatzaile nekazainak.


**"NAFARROAKO SELEKZIOAN OSO POZIK GAUDE LORTUTAKOAREKIN" MAIALEN LARRAZA**

## Aste honetan protagonista izan dira



Kintana, podiumean. UTZITAKOA

**June Kintana Larraza** Espainiako Aire Zabaleko Atletismo Txapelketetan bakaikuarra disko jaurtiketan txapeldunordea izan zen (52,72 m), Ines Lopezen (55,14 m) atzetik. "Denboraldi zaila eta gero, bigarrena. Eskerrak ondoan zaudeteno!" azaldu du.



Mulu Kinf, ezkerrean. UTZITAKOA

**Mulu Kinf Hailemichael** Etiopiako Txirridularitza Txapelketa Nazionalan zilarrezko domina lortu zuen Etxarri Aranazten bizi den Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko etiopiarrek, eguneko ihesaldian sartu eta gero. Negasi Hayluk lortu zuen garaipena.



Beunza, Erdian. J.P. URDIROZ

**Izaskun Beunza Azazeta** La Jaranak antolatutako 39. Entzierroaren Lasterketan Santo Domingo eta Zezen plaza bitarteko 799 metroak lotzen hirugarrena izan zen korrikalari olaztiarra, Marta Fernandez eta Silvia Olkozen atzetik.

## Sakandarrak ongi VI. Irurtzun Arakil Rallysprintean

**AUTOMOBILISMOA** Javier Goikoetxea eta Iñigo Galarza kopilotuak podiumera igo ziren

Ekainaren 30ean 32 autok parte hartu zuten VI. Irurtzun Arakil Rallysprintean, eta horietatik 26k osatu zuten Zuarrarrate portuan prestatutako 12,6 km-ko eremua, hiru aldiz. Azkarrenak Agurain Eskuderiako Andoni

Perez de Villarreal pilotua eta Javier Goikoetxea kopilotu olaztiarra izan ziren (BMW E30), Formula Libreko 10. klaseko txapeldunak (23:22.100).

Iñigo Galarza iturmendiarrak Kintoa Motorsport eskuderiako

Alvaro Gutierrez pilotuaren kopilotu lanak egin zituen beste behin (Citroen Saxo). Lan ederra egin zuten, scratch edo sailkapen orokorrean zazpigarrenak izan zirelako eta bere mailan, lehen klasean, txapeldunak (24:56.600).

Sakana Motorsport eskuderiako ordezkariak Ander Gurmindoko pilotua eta Mikel Larrea kopilotua izan ziren (Clio Sport). Scratchean hamaseigarren sailkatu ziren, eta bere mailan, lehen klasean, hirugarren izan ziren (27:42.100).



Gurmino eta Larrea, Zuarrarraten. AVM

# Triku Trailen, ospakizun ugari

**MENDI LASTERKETAK** Lokatza izan zen 10. Triku Trail mendi lasterketako ezaugarri nagusia. 21 km-ko ohiko lasterketan Xabier Macias eta Maite Etxezarreta gailendu ziren, eta 10 km-ko motzean Ricardo Santamaria eta Guratz Azpiroz

**Maidar Betelu Ganboa** ETXARRI ARANATZ Aurten data borobila ospatzen zuen Etxarri Aranazko kanpinean jokatzeko den Triku Trailek, 10. edizioa baitzuen, eta nobedade garrantzitsuak izan ziren. Tartearen, 21 km-ko ohiko Triku Trail lasterketaz gain (1.300 m desnibel +), 10 km-ko Triku Trail Motza (524 m desnibel +) antolatu zuten. Parte hartzea, ederra izan zen. 218 korrikalarik parte hartu zuten proba nagusian, horietatik 37 emakume, eta 144 ibilbide motzean, horietatik 43 emakume.

Beraz, 362 korrikalari aritu ziren guztira.

Etxarriko lasterketa Nafarroako Lasterketa Luzeen Rankingerako puntuagarria izateaz gain, Triku Traileko bi ibilbideak Euskal Herriko Koparako baliagarriak izan ziren, eta lehia estua izan zen.

Triku Trail egunean ez zuen euririk egin, baina bezperetako ekaitz eta euriteek ibilbidea urez bete eta lokatzen zuten, eta ondorioz, lohia izan zen korrikalarien etsairik nagusia, batez ere lasterke-

tako lehen txanpan. Horregatik, ez zen marka handiak egiteko eguna izan. Hala ere, korrikalariak gozatu ederra hartu zuten.

## Macias, behetik gora

Lasterketa luzea estu joan zen; Xabier Macias iruindarrak (Hiru Herri) irabazi zuen (1:48:50), Iñigo Uribeetxebarria legazpiarraren (1:49:16) eta Hodei Samaniego sestaoarraren (1:50:01) aurretik. Lasterketa hasi eta 5. kilometro inguruan taldetxo bat jarri zen aurretik, Walter Becerra, Hodei Sama-



10. Triku Traileko txapeldun eta saritu guztien podiuma, Etxarri Aranazko kanpinean. Antolatzaileek et

niego eta Iñigo Uribeetxebarria osatutakoa. "Ni atzean nengo, erritmoa gehiegi ez estutzeko. Lasterketa erdian nahiko tekniko den eremu bat dago, eta hor eurenkin bat egitea lortu nuen. 15. kilometroan erritmoa azkartu nuen, eta azken gunera Iñigo Uribeetxe-

barriarekin batera heldu nintzen. Jaitsieran guztia eman nuen, eta tarte txiki bat atera nion Iñigori, helmugara bitartean mantendu ahal izan nuen" azaldu zuen Maciasek helmugan. Triku Traileko aurreko edizio batean bigarren izan zen iruindarra, eta aurt

## "Etxeko probek xarma berezia izaten dute, eta presioa"

**EKHI CONGIL MENDIOLA** MENDI KORRIKALARIA

Ekhi Congil etxarriarra bigarren sailkatu zen Triku Trail motzean, Ezcarayko Ricardo Santamaria irabazletik 16 segundora.

**Monozikloan ezagutu zintugun, baina azkenaldian mendi lasterketetan eta duatloietan ikusten zaitugu. Monozikloan utzi al duzu?**

Ez dut utzi dudala esan nahi, baina bizpahiru urte daramat ukitu gabe. Pandemian probak bertan behera geratu ziren, eta urte horretan bizikleta probatzea erabaki nuen. Bizikletarekin istripua izan nuen Altsasuko Ibarrea industrialdean. Errepideari beldurra hartu, eta korrika hasi nintzen. Eta gustura nagoenez, hala segitzen dut.

**Ziordiko lasterketan, Ergako kronoigoeran, Eguesibarko duatloian eta Triku Trail motzean bigarren izan zinen. Nolako izan zen Triku Traila?** Inoiz baino lokatz gehiago zegoen. Maitzegurrek, ez dakit basoan duen kokapenagatik edo duela

urte batzuk handik egurra ateratzen ibili zirelako, abuztuan izan ezik beti putzu pila bat izaten ditu; bezperako euriekin, pentsa nola zegoen. Gainera, proba luzeok gure aurretik atera ziren, eta 260 korrikalari pasatu eta gero, eremu horrek eski pista bat zirudien, lokatz pila zegoelako. Lohiarekin asko nekatzen zara, hankak etengabe irristatzen zaizkizulako. Aurrera jo beharrean, pauso bat aurrera eta bi atzera ematearen sentsazioa nuen, eta nahiko frustragarria da. Egoera berdina zen guztiondako, baina badago jendea halako egoeratan hobeki moldatzen dena beste batzuek baino.

**Eta zure kasua zein zen?**

Oso gaizki pasatu nuen Maitzegur igotzen. Nik korrika igotzen ditut mendiak; oinez goraka azkar igotze horretan ez naiz oso ongi moldatzen. Lokatzagatik lurra irristakorra egotean, postuak galtzen ari nintzen. Zorionez



UTZITAKOIA

bigarren igoera, Fagamendi, lehorra zegoen, eta bertan berreskuratu nituen aurretik galdutako posizioak. Maitzegurrera

**"MAITZEGURREN OSO GAIZKI PASA NUEN, LOHIARENGATIK. ALDIZ, FAGAMENDIN AURREKOEKIN BAT EGIN NUEN"**

uste dut laugarren iritsi nintzela, baina Fagamendin aurrekoak harrapatu, eta Santamaria lehenengotik 10-15 segundora geratu nintzen. Jaitsiera guztia horrela joan ginen, elkar ikusiz baina Santamaria ezin harrapatu.

**Kontentu zaude bigarren postuarekin?**

Bai, oso kontentu, oso gustura herrian aritzeagatik eta jasotako animoekin. Triku Traileko ibilbidea polita da, eta antolakuntzak asko zaintzen du korrikalaria, izugarri. Bukaeran masajea duzu, eta behar duzun guztia, denetatik. Lasterketa hau edozein postuan eginda, pozik geratzen zara.

**Triku Trailen hamargarren edizioa delako antolatu zuten lasterketa motza. Motzak lasterketa herrikoia goa egiten al du? Parte hartzaileagoa?**

Lasterketa motza antolatzeak parte hartzea asko bulkatzen du, batez ere Sakanan. Jende askok herriko lasterketetan aritu nahi izaten du, baina ez da berdina 21 kilometroko proba batek eskatzen dizun prestakuntza, edo 10 kilometroko eskatzen dizuna. Ni aurtin lasterketa laburrak egiten



Voluntarioek kamiseta gorria jantzi zuten. N. MAZKIARAN

arantza kendu eta txapelduna izatea lortu du. Horregatik, pozez gainezka zegoen.

Ibilbide luzeko lehen sakandarra Iraitz Berastegi lakuntzarra izan zen, primerako lana egin, eta sailkapen orokorrean 39. postuan sailkatuta (2:18:44).

ari naiz; motzek luzeek baino gehiago motibatzen naute. Triku Trailen bakarrik luzea balego, ariko nintzateke, baina bi aukera egonda, gehiago erakartzen nau motzak. Etxarriko ferietako Mendira Joan Etorrian jende asko animatzen da, eta Triku Trailleko motzak jende hori erakartzen du. **Lakuntza-Aralarren sakandar gehienek motzean eman zuten izena.**

Egun batzuk lehenago hanka bihurritu nuen eta Lakuntza-Aralarren ezin izan nuen aritu; pena hori dut. Ibilbide motzak proba herrikoia bihurtzen du, errazagoa, eta garrantzitsuena lortzen duzu: jendea mundu honetan sartzea. Horretarako, lasterketa erraztu behar duzu. **Emakumezkoetan motzean hirugarren Marina Zabala lakuntzarra izan zen, eta Triku Trail luzean lehen sakandarrak Iraitz Berastegi lakuntzarra eta Ainara Galarza urdiaindarrak, Etxarrin bizi den Maite Zabaleta leitzarra ahaztu gabe. Nolakoak da sakandarren maila?** Sakanan maila handia dago. Garen ibar txikirako, denetatik dugu,



Erkuden San Martin etxarriarra, paraje zoragarrian aurrera. FESTAK.COM

Emakumezkoetan, Maite Etxezarretak ez zuen areriorik izan (2:14:30). Azpeitiarrak hirugarren aldiz parte hartu zuen Triku Trailen, eta bere bigarren garai-pena lortu zuen, 2017koaren atzetik. "Lohi asko zegoen ibilbidean, eta ez zen korrika gehiegi egiteko eguna, baina gustuko lasterketa da, ibilbideko zatirik gehiena basoan delako" azaldu zuen irabazleak helmugan. Bigarren Ainhoa Intxausti segurarra (2:17:27) sailkatu zen, eta hirugarren Lara Estebanez legazpiarra

(2:19:07). Lehen sakandarra Ainara Galarza urdiaindarrak izan zen (3:01:45), baina aurretik Maite Zabaleta leitzarra sailkatu zen, Etxarrin bizi dena (2:59:48).

Lehen etxarriarrak 43. sailkatutako Joxeja Maiza (2:19:28) eta Erkuden San Martin (3:07:50) izendatu zituzten.

#### Congil eta Zabala, motzean

Lasterketa motzean Ezcarayko Ricardo Santamaria junior errioxarrak irabazi zuen proba, (52:32), Ekhi Congil etxarriarrari 16

segundo aterata (52:48). Congilek behetik gora egin zuen, lehen zatian okerrago ibili baitzen, zegoen lohiarengatik. Izan ere, Triku Trail luzearen atzetik abiatu zuten lasterketa ibilbide motzekoek, eta luzekoek aurretik zapatutako ibilbidea osatu behar izan zuten lehen eremuan. Hirugarren Mattin Intxaurren izan zen (53:27). Emakumezkoetan, Guratz Azpiroz uitziarra izan zen azkarrena (1:08:03), Jone Oar-Arteta gernikarraren (1:08:11) eta Marina Zabala lakuntzarren (1:08:22) aurretik. Lehen etxarriarrak Ekhi Congil eta Leire Estarriaga (1:12:15) izan ziren.

#### Festa polita

Bukaeran, Triku Trailleko antolakuntzak auzate ederra eskaini zien kanpinean bildutako korrikalari eta ikusleei, eta, ohikoa denez, egun ederra izan zen. Txikiendako rokodromoa presatuta zuen antolakuntzak, eta proba baino bi egun lehenago Pancho Balbuenaren kontzertua eta burger gaua antolatu zuten kanpinean. 10 edizio eguneroko betetzen ez direlako.

ferietako Mendira Joan Etorria. Duela bi urte nire lehen lasterketa izan zen, eta urteko helburuetako bat izaten da. Niretako egun berezia da, Triku Traila bezala. Etxeko probek xarma berezia dute, eta baita presio berezia ere bai. **Triku Trailak 10 edizio bete ditu.**

Triku Trailak herriko lasterketaren izaera mantentzen du, nahiz eta herriko haragoko fama lortu duen. Proba herrikoien izaera mantentzen du, eta korrikalaria zaintzearen ardura, nahiz eta prestigioa izan. Askotan karrera prestigioetuenak itsusienak bilakatzen dira, dirua eta bestelakoak tartean sartzen direlako, baina Triku Traille ez du ezaugarri hori. Festa modukoa da, aurten gehiago indartu dute: Burger gaua, Pancho Balbuena, haurrentako rokodromoa... Auzatea irekia izaten da, korrikalariendako eta ikusleendako, eta oso polita da. Nire monoziklo garaian Uniconera, munduko monoziklo txapelketara joaten lagundu ninduten Triku Traillekoek, eta harreman polita dut eurekin.

asfaltuan oso ongi ibiltzen den jendea, eta mendian oso ongi ibiltzen dena. Sakanako lasterketetan herriko korrikalari onena izatea jada zaila izaten da; nahikoa lehia egoten da (kar-kar). Mendiz inguratuta, hemen kirola egitea hain da erraza... horregatik beti maila handia dago. **Zer moduz doa denboraldia?** Joan zen urteko lasterketa berdinak egin ditut eta denborak hobetu ditut; hortaz, oso kontentu nago. Iaz laugarren postu asko egin nituen, eta aurten hori bigarren postura aldatu dut. Azkeneko lau lasterketak laurak bigarren postuan egin ditut. Ezkio-ltsason lehen postua lortu nuen, eta, beraz, lehen txapela lortu dut, baina lehen postua lortzea kostatzen zait. Ea gehiago iristen diren, baina bigarren ere ez dago gaizki. Monozikloan kopak edo dominak ziren, baina txapela lortzeak badauka zerbait berezia, bakarrik hemen lortu dezakezulako. Oso polita da.

**"TRIKU TRAILLEK, NAHIZ ETA FAMA IZAN, HERRIKO LASTERKETAREN IZAERA MANTENTZEN DU"**

## Sakandarrak

### Luzea (21 km)

• Gizonak	
1. Xabier Macias	1:48:50
39. Iraitz Berastegi	2:18:44
43. Joxeja Maiza	2:19:28
68. Andoni Goikoetxea	2:30:31
74. Carlos Mañeru	2:35:15
75. Mikel Galarza	2:35:48
76. Iosu Urriza	2:35:50
87. Ibon Ubeda	2:39:07
89. Alain Iriarte	2:39:51
91. Kepa Gordo	2:40:00
96. Aitor Salinas	2:41:57
101. Bernar Garziandia	2:44:34
109. Roberto Zordia	2:46:03
110. Iñaki Agirre	2:47:19
112. Mikel Beloki	2:48:36
116. Miguel Navarro	2:49:13
117. Oihan Barandalla	2:49:14
126. Ricardo Palacios	2:53:17
131. Iñaki Lacalle	2:55:23
136. Sergio Sanca	2:56:42
140. Jon Igoa	3:00:53
141. Javier Beloki	3:01:09
142. Pako Moreno	3:01:35
165. Adrian Jaka	3:14:18
176. Hodei Lakuntza	3:23:09

\*Ibai Arrese ez zen sailkatu.

### • Emakumeak

28. Maite Etxezarreta	2:14:30
138. Maite Zabaleta	2:59:48
143. Ainara Galarza	3:01:45
158. Erkuden San Martin	3:07:50
190. Maialen Maiza	3:34:53


### Motza (10 km)

• Gizonak	
1. Ricardo Santamaria	52:32
2. Ekhi Congil	52:48
5. Ibai Huarte	54:21
11. Asier Estarriaga	56:06
21. Eneko Aramendia	59:27
22. Joseba Galarza	59:37
24. Israel Arbizu	59:54
28. Aimar Araña	1:01:52
29. Jokin El Marhoum	1:02:35
30. Ibai Perez	1:02:36
32. Santi Galarza	1:03:10
35. Fran Araña	1:05:03
45. Igor Razkin	1:09:58
46. Jon Orella	1:10:25
48. Roberto Zornoza	1:11:06
67. Oihan Artieda	1:15:19
69. Xabier Mauleon	1:15:54
75. Oier Aierdi	1:07:42
76. Iosu Jaka	1:17:02
95. Kimetz Arregi	1:24:30
103. Andoni Azanza	1:27:42
108. Iñigo Orella	1:29:25

### • Emakumeak

37. Guratz Azpiroz	1:08:03
42. Marina Zabala	1:08:22
53. Leire Estarriaga	1:12:15
56. Larraitz Tejedor	1:12:49
104. Jaione Loban	1:27:43
124. Aitziber Agirre	1:35:00

\*Amaia Arangiz eta Ane Escala ez ziren sailkatu.



Iraitz Berastegi. FESTAK.COM



# AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 5

**OLATZAGUTIA Kontzertua.**  
Zelanda taldearen kontzertua.  
20:00etan, *Barandí*  
tabernan.

**IRURTZUN Ikuskizuna.**  
*Yugén* La banda teatro circo  
konpainiaren antzerki eta zirku  
ikuskizunaren emanaldia.  
21:30ean, *Gernika plazan*.

## ASTELEHENA 8

**ALTSASU Elkarretaratzea.**

Sakanako Pentsiodunen  
Mugimenduaren Pentsio duinen  
aldeko kontzentrazioa.  
12:00etan, *udaletxearen aurrean*.

## ASTEARTEA 9

**ETXARRI ARANATZ Ur festa goxoa.**  
*Gozamenez* programaren *Ur festa goxoa* ekimena: gaueko bainua eta ur jokoak, alkoholik gabeko edariak eta musika. 12 urtetik gorakoendako gazteei bideratuta. Sakanako *Gozamenez* Batzordeak eta Gizarte Zerbitzuak antolatuta.  
20:30etik 23:00etara, *igerilekuetan*.

## ASTEAZKENA 10

**ALTSASU Ur festa goxoa.**  
*Gozamenez* programaren *Ur festa goxoa* ekimena. 12 urtetik gorakoendako gazteei bideratuta. Sakanako *Gozamenez* Batzordeak eta Gizarte Zerbitzuak antolatuta.  
**Dantzaleku igerilekuetan.**  
20:30 Aurkezpena.  
20:30-23:30 Bainua eta ur jokoak.  
21:30 Bokata eta alkoholik gabeko edaria, 4 eurotan.  
21:30-23:30 DJ Brahianen eskutik animazioa.  
23:00 Txokolate iturria.




**IRURTZUN** Luisa Aldaburu artistaren artelanen erakusketa.  
*Pikuxar* tabernan.



## EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 4




Larunbata, 5



Igandea, 6



Astelehena, 7



**Erviti** aluminio  
PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | [info@aluminioserviti.es](mailto:info@aluminioserviti.es)



Ez bota etxea leihotik!

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen



Mantis taldeko kideak Urdiainen: Jorge, Santi, Asun Zelaia urdiindarra eta David.

# Bizitzaren ezusteak

Asun Zelaia Etxarri abeslari urdiindarra hogeit hamar urteren ondoren eszenatokietara itzuli da, Urdiaingo festetan, Mantis indie bertsioen taldearekin. Proiektuak "ezustean" harrapatu zion, eta taldekideekin "oso gustura eta eroso" sentitzen da

**Erkuden Ruiz Barroso** URDIAIN Urdiaingo festetako azken egunean, uztailearen 3an, eguerdian, Mantis taldearen kontzertua izan zen. Taldeak indie taldeen bertsioak egiten ditu, baita pop-rock estiloko zenbait abesti propio ditu ere. Abeslaria herriko ezaguna da: Asun Zelaia Etxarri urdiindarra. Bi hamarkada inguru eszenatokira igo gabe egon ondoren, Santi, David eta Jorge taldekideekin batera kontzertuak ematen hasi da. "Ezustean harrapatu ninduen, ez nuen inondik inora espero proiektu honetan sartuko nintzela". Berarengan jarri duten konfiantza "oso polita" izan dela esan du Zelaiak. "Bizitzak harritzen zaitu. Uste dut beldurratik ez direla gauzak alde batera utzi behar; bizitzak ekartzen dizkizun gauzei heldu behar zaie, beldurrik

gabe, eta partekatu". Horretan ari da.

17 urterekin, gutxi gorabehera, hasi zen Zelaia abesten, "uste dut 1986. urtea zela eta Iñigo Goikoetxearekin Euskal Kantu Lehiaketa batera aurkeztu ginen. Bigarren postua lortu genuen". Ondoren, Ortzi taldeko kidea izan zen. Entseguetan asko gozaten zuela baina eszenatokietan ez zela eroso sentitzen esan du abeslariak: "Gaizki pasatzen nuen". Ortziren ondoren jendearen aurrean abesteari utzi nion. "Alde hori nire bizitzatik at

**ASUN ZELAIA ETXARRI Urdiindarra MANTIS INDIE BERTSIOEN TALDEKO ABESLARIA DA**

gelditu zen". Hala ere, ez dio inoiz abesteari utzi.

## Kantu klaseak

Duela zortzi urte Zelaia LHko irakasle lanean hasi zen eta konturatatu zen ordubeteko klasearen ondoren ahotsa galtzen zuela. "Nik uste nuen tentsioagatik edo urduritasunagatik zela, baina probak egin zizkidaten eta soketan ez zuten ezer ikusi". Ahotsarekin "beti harremana" izan duenez kantu klaseak hartzen hasi zen, "baina ez kantatzeko helburuarekin, baizik eta arnasa hartzen ikasteko, zonaldea lasaitzeko eta abar". Jazz eskola batean hasi zen, Iruñean, eta irakasleak audizioak egiten zituen: "Beldur eszeniko izugarria neukan eta audizioetara ateratzen nintzen baina desastre hutsa zen". Bazekien gaintzeko modu bakararra ateratzea zela.

Santi bateria joleak eta Zelaia- ren lankideak bazekien kantu klaseetara joaten zela eta aspaldi abesten zuela, "beraiek bazuten duela lau urte inguru soul talde bat eta proposatu zidan koroak egitea. Ezetz esan nion, inondik inora". Baina 2023ko apirillean Zelaiak kantu audizioa egin zuen, "eta amaitu nuen". Santiri deitu zion esanez taldean parte hartzeko prest zegoela, "talde hori pandemiarekin amaitu zen, baina David baxu jolearekin eta Jorge gitarrak jolearekin indie bertsioen talde bat sortu zuten". Mantis taldea. Zelaiari abeslaria izateko proposatu zioten. "Hasieran ezetz esan nion, baina hiru abesti prestatzeko bidali zizkidaten, entsegu batera joan nintzen, eta oso gustura egon nintzen".

"Lauron artean harreman ona daukagu; ostiraletan entseuetan

dugu Erriberrin; Santi eta David bertakoak dira eta Jorge Lizarrakoa". 2023ko Erriberriko festetan, irailean, jo zuten lehenengo aldiz publikoaren aurrean. "Oso eroso eta gustura sentitzen naiz".

Olentzeroren egunean herrian bueltan ari zirela Zelaiak David Oroz Urdiaingo alkateari esan zion musika talde batean abesten zuela eta "Urdinen jo behar dugu. Ez nion ezetz esateko aukerarik eman". Data bat zehaztea baino ez zen falta, eta data hori Urdiaingo festak izan zen. Gerora "zein momentutan" pentsatu zuen Zelaiak, eta aurretik pixka bat urduri egon arren, "erronka bat izan da. Herrian talde gehiago daude eta hor daude jotzen, eta ni izkutatzen bezala ari naiz; zergatik ez dut herriarekin partekatuko?".



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

## Udako ipuina: oihanaren legea

Rudyard Kipling idazleak zerua bezain zaharra den oihanaren legea argi eta garbi azaldu zigun bere liburu ospetsuan. Zuhaitz enborra inguratzen duen huntzak bezala, legeak aurrera eta atzera egin dezake otsoen nahierara, eta legea beti agertuko da haien alde, otsoek kasu guztietan eta inoiz ere kale egin gabe elkarri ematen baitiote babes. Oihana beraientzat egin da eta zuk, ardi horrek, haiekin joan nahi baduzu, ez ahaztu noren atzetik zoazten eta noraino diren ehiztari abilak otsoak.

Zaila da zehazten noiz hasi ziren otsoak otso izaten eta ardiak, ardi. Jakina denez, denboren hasieretan urez eta eguzkiaren argiaz elikatzen ziren bakterio batzuk sortu ziren. Beranduago, arrainak. Hauek itsasoko uretatik atera eta lehorra betetzen hasi ziren. Anfibioek baldintza gogor haieran biziraun nahi bazuten, azulanean aritzen eta errekurtsuak partekatzen ikasi behar izan zuten. Honela, lankidetzeta eta eboluzioaren garapen apartari esker belarra jaten zuten animaliak sortu ziren eta haien artean, ardiak.

Eboluzioaren katea, ordea, ez zen eten, eta belarra bilatze lana gogorra eta nekagarria zenez gero, egun batean haragijaleak sortu ziren, belarjaleak ehizatzea erraza baitzen.

Honela, behin batean, belarra jaten ari zen ardi antzikabe bat otso batek jan zuen, eta handik aurrera otsoek beren legea ezarri zuten oihan zabalean.

Oihanaren gizartea egituratzen hasi zen orduan, otsoen elite txiki batek dena kontrolpean jarri zuen, ardiak lurraz bereganatu zituzten eta fortuna handiak sortu ziren.

Ardi gehienak gero eta okerrago bizitzen hasi ziren, beste batzuk, berriz, nahiko ongi otsoen zerbitzura, otsoak defendatzen, haiekin atseginak eta adeitsuak izaten, noizbait otsoak izango zirelako esperantzan.

Kiplingek berak gaztigitzen digunez, oihanaren legeak asko dira, baina, finean, bakar batean biltzen dira: ardia, otsoaren legea obeditu eta kitto!

Arkazte, erne! Saiatu zeure janaria haiengandik urrun bilatzen eta ez egon obeditzeagatik emango dizuten sariaren zain, arriskutsuak dira eta!

**Erkuden Ruiz Barroso** ARAKIL

Bere bigarren izena Erkuden dela kontatu du Alicia Griffiths Turrillas harpa jotzaile iruindarrak. "Abizen horiekin nahikoa ez balitz, exotikoagoa izateko edo". Bere amak Altsasuko institutuan lan egin zuen, bertan izena ezagutu zuen, eta gustatu zitzaion. Orain arte Sakanarekikolotura "bakarra" zen, baina konexio antzeko bat zen, izan ere, duela urte eta erdi "ezustean eta bilatu gabe" Urri-zolara bizitzera joan zen. Besteak beste, Kontserbatorioko irakaslea da, Nafarroako Orkestrako kidea eta bakarka kontzertuak ematen ditu ere. Iazko udan harpa festibala antolatu zuen Urri-zolako elizan eta aurten Itxasperrin emanen du kontzertua, uztailaren 15ean, 19:00etan.

**Zergatik harpa?**

Oso txikitatik harpa nahi nuela esaten zidaten familiakoek. Ez dakit nondik datorren interesa, eta beste bizitza batetik datorrela pentsatzen hasi naiz. Izan daiteke telebistagatik edo kontzertu didaktikoren batengatik. Zazpi urterekin instrumentua aukeratu behar nuen gitarra aukeratu nuen, oso pozik, baina harpa eskatzen jarraitzen nuen. Kontserbatorioan harpa jarri zutenean hasi nintzen.

**Nola jotzen da?**

Hari pulsatuko instrumentu bat da, baina hatz mamiekin jotzen da. Oso boluminosoa da, 40 bat kilogramo pisatzen du; hiruki formako estruktura handi bat da eta hanken eta sorbaldaren gainean jartzen da, ez pisatzeko oreka bilatuz. Harietara bi aldeetatik iristen da, modu asimetrikoan, eta eskuinarekin erre-gistro zentrala eta agudoak jotzen dira eta ezkerrekin erre-gistro zentrala eta grabaek. 47 hari ditu eta zazpi pedal. Zailtasunetako bat da eskuen eta oinen arteko koordinazioa.

**Zein izan da zure ibilbidea?**

Harparekin hasi nintzenez musika nekienez eta hainbeste gogo nituen, ez ninduen inork gelditu, gradu elementala eta erdi maila zortzi urtetan egin nuen. Ondoren, goi maila egitera, *bachelor of music*, Londresera joan nintzen, lau urtez, eta bertan gelditu nintzen. Hiru urtetan masterra egin nuen. Guztira, hamabost urtez ikasten egon naiz. Ez dago trikimailurik, ikasketa eta lan ordu asko dira. Beti ikasten zaude. Oso gaztetatik erabaki nuen honetan lan egin nahi nuel

# "Oso txikitatik argi izan nuen harpa jotzailea izan nahi nuela"

**ALICIA GRIFFITHS TURRILLAS ARPA JOLEA**

Duela urte bat eta erdi inguru Urri-zolara bizitzera joan zen. Aurreko urteko udan herriko elizan arpa festibala egin zuten, eta aurten Itxasperrin egingen dute



Alicia Griffiths Turrillas harpa jolea Itxasperrin. UTZITAKOA

la: hamasei edo hamazazpi urterekin oso konbentzituruta nengoen. **Instrumentu oso klasikoa da, ezta?** Barrokoko musikarekin, klasikoarekin edo erromantikoarekin erlazionatzen dugu, bai. Baina askotarako ematen du. Gehienbat

**"URRITZOLARA KASUALIDADEZ IRITSI NINTZEN, ETA KONEXIOAK IKUSTEN HASI NINTZEN"**

musika klasikoaren barruan mugitu naiz, baina erdi aroko harpa bat jo izan dut, eta duela bi egun idatzitako pieza garai-kideak jo ditut ere. Baina beti musika klasikoa, serioa edo formala deitzen diogunaren barruan. Orain folk musika ikertzen ari naiz; libreagoa da, sustraietako, partiturarik gabekoa. Harpa edozein estilotan egon daiteke. **Eta nola ikusten duzu musika klasikoa?**

Aldatzen ari da. Publikoa aldatzen ari da, gustuak aldatzen dira, eta musikariaren aldetik inizatiba asko daude zabaltzeko eta aretoetatik ateratzeko eta beste inguru sozialetara eramateko, jendeak musika behar duen toki horietara eramateko; kasposo edo elitista etiketa hori kentzeko. Musika klasikoa ez da zerbait zaharra edo urrutikoa bezala ulertu behar. Guztioi iristen zaigu, beti zerbait mugitzen dizu. Komertzialagoa izan daitekeen musikara gerturatzen da ere, soinu bandak esaterako. Oso gertukoak dira, baina azken finean kontzertu sinfoniko bateko musika da.

**Nola iritsi da harpa jotzaile bat Urri-zolara?**

Istoria oso polita da. Kasualitatez beterikoa. Errotzen familia daukat eta duela bi urteko udan lekualdaketarekin laguntzen ari nintzen eta Iruñera itzultzeko, denbora nuenez, beste bide batetik joatea erabaki nuen. Urri-zo-

lara iritsi nintzen eta autobiderra atera nahi nuen baina ez nuen bidea aurkitzen. Plazan pertsona batekin egin nuen topo, pentsa, Urri-zolako plazan, abuztuko astelehen bateko 10:00etan. Pertsona hori Iruñeko inmoiliaria batekoa zen, eta etxe bat erakustera joan zen. Aurretik ikusita neukan iragarki bateko etxea ote zen galdetu nion. Bisitariak berandu zetozen, eta ea ikusi nahi nuen esan zidan; izan nituen bi minutuetan maitemindu nintzen. Filmetako etxea zen; filmetako herri eta ibarrean. Hortik atera nintzen pentsatuz ezin nuela alde batera utzi. Konexio gehiago ikusten hasi nintzen: gertu senideak nituen, aspaldiko lagun bat Urri-zolara bizitzera joan zen, beste bat Zuhatzura... Sofa laranja zen, nire etxekoa bezalakoa. Hainbat hilabeteko tramiteen ondoren, dena bat etorri zen. Bizitzera joan aurretik herriko jendea aurkeztu zidaten, dinamika ezagutu zuen, eta jendea oso jatorra eta abegikorra zen. Ametsetako etxe batek behar duen zerrenda egingo banu, hori izango litzateke. Aurretik banuen ideiarekin bat hiritik herrira joateko, baina idealizatuta neukan. Oso ausarta iruditzen zitzaidan. Pelikuletan bezala izan da.

**Iritsi eta aurreko udan festibala antolatu zenuen.**

2023ko otsailan etorri nintzen, eta udan harpa festibala antolatu nuen Donostiako eta Bilboko bi lagun harpa jotzailekin. Aspaldi generaman zerbait egiteko nahian, eta baldintza guztiak betetzen ziren hemen. Sei egunez elkarrekin egon ginen eta hamar ikasle etorri ziren. Kontzerturako herriko eliza ireki ziguten, bi urte itxita egon ondoren. Herria guztiz sartu zen, eta oso pozik zegoen. Oso arrakastatsua izan zen.

**Aurten errepikatuko duzue.**

Iniziatiba gustatu zitzaidan eta inpultsoa hartu zuenez, aurten lau eguneko erresidentzia artistikoa egingo dugu. Kontzertua uztailaren 15ean, astelehenean, 19:00etan, Itxasperrin izango da. Espazio hori oso berezia iruditzen zitzaidan, Arakilgo topagune berezia da, eta inguru ere izugarria da. Hemen oso gustura nago eta dena oso erraza izaten ari da. Oso polita. Kulturarekin elkartu nintzen eta disonibilitate osoa eman zidaten, eta jendeak ere esaten dit ea harpakoa naizen eta noiz emango dudan kontzerturen bat hemen.



Mattin Lazkoz Etxebeste, Igor Romero Azpiroz eta Maren Azpiroz Andueza, Zarata txarangako partaideak.

# "Galdera izan zen: nola antolatuko dugu?"

Duela hiru bat urte sortu zen Zarata txaranga Lakuntzako eskolan, eta igandean San Ferminetan izango dira. Mattin Lazkoz, Igor Romero eta Maren Azpiroz txarangako hiru kide dira, eta gurasoen artean Jasone Etxebeste musikaria dago

## 1 Nola sortu zen txaranga?

Eskolako festetan uste genuen musika pixka bat falta zela. Gurasoen Elkartek eskola festarako guraso musikariari eskatu zien ea elkartuko zituzten haurrak eta horrela kalejira moduko bat egingo luketen herritik, bestela festa oso eskolako gelditzen zelako. Guraso batzuk partiturak prestatzen hasi ziren, eta egia da garai horretan ikasle asko instrumentuak jotzen hasi zirela ere.

## 2 Nola garatu da?

Hori ekaina batean izan zen eta irailan Amaia Razkin etxarriarra hasi zen musika irakasle eskolan. Ideiari buelta bat eman zion eta proiektuan gehiago murgildu zen. Aurretik entsegu gutxi batzuk egin genituen, kalera atera ginen eta hor gelditu zen. Baina abenduan Olentzero etortzen da, eta Amaiak proposatu zuen berekin jotzera ateratzea. Klasetan entseguak egiten hasi zen eta gero beste batzuk eskolatik kanpo ere.

## 3 Zenbat kideekin hasi zen txaranga? Eta zenbat kide ditu orain?

Hamar edo hamabi kideekin hasi zen, eta hamabost eta hogeitardean daude. LH3tik aurrerako eskolako ikasleek parte har dezakete, baita institutuan dauden baina eskolako ikasleak izan direnak ere. Guraso batzuk lagunduta.

## 4 Zer musika tresna daude?

Txaranga batekoak eta gehiago: trikitilariak, eskusoinu joleak, panderojoleak, perkusionistak...

## 5 Zein da Zarata txarangaren errepertorioa?

Polkapik, Ikusi Mendizaleak, Zazpi jauzi, Maria Jesus, Bat, bi, hiru, lau..., Txulalai, Esku dantza, Ipurdi dantza... Kalejirako abestiak izaten saiatzen gara, dantzak ere baditugu. Polkapik estreina-tu behar dugu orain.

## 7 Nola aukeratu dituzte?

Proposamenak luzatzen dituzte eta gero gurasoek begiratzen dituzte. Polkapik, adibidez, eskatua da. Horregatik sanferminetan jo behar dugu. Txarangako bi kide

ari dira Lakuntzako txarangak lehen jotzen zuen lehenengo abestia berreskuratzen, *Animo pues!* edo horrelako zerbait zen. Inaurretan haurrek dantzatuko zituzten abestiak esan zizkiguten eta horiek prestatu genituen txarangarekin, kaseta eraman beharrean, zuzenean musika egin genuen. Zamarroen dantza duela pare bat urte dantzatu zuten, eta aurten musika, eta txarangarekin jo genuen.

## 8 Beraz, sanferminetara joango zarete. Nola sortu zen ideia?

Ama baten ideia izan zen. Eskola festaren egunean, ikasturteko azken emanaldian, hainbeste emozionatu ziren ideia sortu zela. Inork ez zuen ezetz esan, eta sanferminetara goaz. Autobus bat jartzea pentsatu zuten ere.

## 9 Zein da plana?

Sanferminetara girotxoa ikustera joatea. Gurutze plazan, 17:00etan, geldituko gara eta tonbolaruntz joango gara. Eguraldiaren arabera, dagoen giroaren arabera... Ikusiko dugu; alde zaharrean, esaterako, ez dugu uste sartuko garenik. Azkenean,

txaranga LH3tik aurrerako ikasleak eta institutuan daudenak daude, eta orduan elkartzeko egun bat izatea nahi dugu. Adin desberdinak daude; denak elkarrekin egoteko egun bat. Egun pasa. Sanferminak beste modu batera bizitzera. Inor ez daukagu gainetik zer egin behar dugun esateko, eta gainera haur asko joango dira ere.

## 10 Eta guraso nahikotxo ere, ezta?

Bai. Azpiegitura handi bat dago atzetik dena prestatzen. Jende saltseroarekin elkartzen zarenean badakizu zer dagoen; gauzak saltseroen artean mugitzen direnean... Gurasoen bilera bat egin genuen eta ez zen guraso bakar bat faltatu. Guzti-guztiak

joan ziren. Galdera ez zen: sanferminetara joango gara? Ez. Galdera izan zen: Nola antolatuko gara sanferminetara joateko?

## 11 Ondoren, zer? Zein da helburua?

Bakaikuko festetan ere egongo gara bi egunez. Dena dela, gurasoen helburua ez da asko ateratzea edo zabaltzea. Gurasoen helburua da haurrak disfrutatzea. Aste honetan entseguak egin dituzte eta barre egiten dute, ongi pasatzen dute... Bestela, uda iristen denean instrumentua uzten dute irailera arte, eta modu honetan orain ere jarraitzen dute. Orain ez dira oso kontzienteak, baina beraientzako positiboa da; haien artean erlazionatzen dira... Eta oso ongi pasatzen dute.

# FESTETARAKO DENA PREST?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe





DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

f o

619 821 436  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
[www.gkomunikazioa.eus](http://www.gkomunikazioa.eus)  
 Foru plaza, 23-1. Altsasu

